

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA - IBAIESTU



Ibaizabal ikastolako Bigarren mailako batxilergoko ikasleak gara. Startinnova sarearen bitartez gure etorkizuneko proiektu profesional posiblea aurkeztuko dizuegu.

Egunerokotasuneko erosotasuna kontuan hartuz, hainbat ideia bururatu zitzaikigun, horietako bat aterkin erosoagoak. Izan ere, Euskadiko klimatologia aztertu ondoren, argi dago urte osoan zehar euri asko egiten duela, hori dela eta, aterkiak erabiltzea derrigorrezkoa zaigu. Gaur egun, aterki guztiak eramateko eskuak erabili behar dira, beraz, eskuak hoztu egiten zaizkigu. Gainera, euria geratzen den momentuan, aterkia aldean eramatea ez da batere eroso, ondorioz, aterki asko galdu egiten dira edo eta jendeak aterkiak erabiltzeari uzten dio.

Arazo honen aurrean, guk aterkin modelo berri bat planteatu dugu, aterkin berri horrek, bi ezaugarri nagusi izango ditu hainbaten artean: alde batetik, euria geratzen den momenturako, erosoagoa eramateko izango den "poltsatxo" bat izango du aterkiak berak itsatita. Beste alde batetik, euria ari duen momentuetarako, aterkia eramateko ez da beharrezkoa izango eskuak erabiltzea, aterkiak berak zinta batzuk izango baititu, modu horretara, motxila moduan jarri eta eskuak libre izango ditugu.